

## **UNIBASQ EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE AGENTZIAREN AHOLKU BATZORDEAREN OHIKO BILERAREN AKTAREN LABURPENA.**

2015eko uztailaren 7ko 10:00etan, Eusko Jaurlaritzaren Bilboko Lurralde Ordezkaritzan, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Aholku Batzordea bildu da, honako kide hauek bertaratu direla:

Batzordekideak: agentziako zuzendari Juan Andrés Legarreta jauna, Estibaliz Amorrortu andrea, Itziar Txurruka andrea, Gemma Espigares andrea, Alfonso Hernández jauna, Jean-Michel Uhaldeborde jauna eta Félix Pérez jauna.

Ezin etorria adierazi dute jaunak, Jörn Grunewald jaunak, César Arrese-Igor jaunak Aurelie Arcocha andreak eta Eneritz Garro andreak.

Unibasqen aldetik José Manuel Valle (zuzendari laguntzailea) eta Eva Fdz. de Labastida (ebaluazio-arduraduna) bertaratu dira.

Gai-zerrenda

1.- 2015eko martxoaren 16ko aurreko bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.

### **Onartu da akta.**

2.- Zuzendariaren txostena.

3.- Ikasketa-planen aldakuntzak eta egiaztapenerako dokumentazioa aztertu eta onartzea.

A. Gradu/masterren egiaztapenerako eta baimenerako gida

B. Doktoregoen egiaztapenerako eta baimenerako gida

C. Gradu/masterren aldakuntzak eskatzeko gida

D. Doktoregoen aldakuntzak eskatzeko gida

### **Dokumentuak onartzen dira.**

4.- Batzordeetako kideen izendapena:

4.1. Irakasleen Egiaztapenerako batzordeak (berrikuntzak).

4.2. Irakasle-lkertzaiileen Osagarrein ebaluaziorako batzordeak.

4.3. Tilulazioen batzordeak (batzorden baten gehikuntza).

### **Batzorde desberdinen kideen izendapena onartzen da.**

5.- Galde-eskeak.